



2009-05-25

Gasteizko Sancho el Sabio fundazioak egoitza berria irekiko du ostegunean

Euskal Herrian aurkitu dituzten sei gramatika liburu zaharrenak biltzen ditu erakusketak. Lapurdiko Pierer d'Urte elizgizonak 1715ean topatutako idatziak dira.

Sancho el Sabio Fundazioak Gasteizen irekiko duen egoitza berria ostegun honetan, maiatzak 28, inauguratuko dute. Horretarako, erakusketa berezia prestatu dute. Euskal Herrian aurkitu dituzten sei gramatika liburu zaharrenak bilduko ditu erakusketak. Lapurdiko Pierer d'Urte elizgizonak 1715ean topatutako idatziak dira. Caja Vital Kutzak sustatutako Fundazioak komunikabide bidez azaldu duenez, erakusketako liburuak 1715. urtekoak dira Lapurdiko Pierre d'Urte elizgizonak topatuak. Macclesfieldeko konde ingelesez liburutegian gordeta egon dira urtetan, Sancho el Sabio Fundazioak Sothby'seko enkantean erosi dituen arte. Modu honetan, sei liburu horiekin prestatu duten erakusketa egoitza berriaren inauguraziorako arobetxatu dute. Euskal kulturaren inguruko dokumentazio zentro bibliografiko berria Betoñon dago, garai bateko Karmeldar Oinutsen kapera neogotikoan.